

<b>Berdintasun Zerbitzua</b>		<b>Getxoko Udala</b>
<b>Gaia: BERDINTASUN BATZORDEAREN BILERA</b>		

**Bileraren datuak:**

Data: 2024-06-06

Tokia: Billamonte Kultur Etxea

Ordua: 17:00-18:30

**Bertaratutakoak:**

Bilgune feminista: Uxune Iriondo

Bidea Eginez: Estibaliz San Sebastián

Eskuz Esku: Marta Ortiz

Getxo Enpresa: Yenny Medrano

Sindikatuak: Iratxe Zarraga

EAJ-PNV: Keltse Eiguren

PSE-EE: Mihaela Jilavu

EH Bildu: Ane Larrakoetxea

ELKARREKIN PODEMOS-EP: Paula Amieva

Presidentea: Carmen Díaz

Idazkaria: Bego García

**Gai-zerrenda**

- Aurreko saioko akta onestea.
- Berdintasunaren alorreko udal-informazioa.
- GURARI. Trantsizio-taldea; etxearen irekiera, horren erabilera, parte-hartzea eta kudeaketa. Bilgune Feministaren proposamena

- Udaleko Berdintasun Arloaren baliabideak. Bilgune Feministaren proposamena
- Udaleko gainerako sailekin eta arloekin koordinazioa eta lankidetzak. Bilgune Feministaren proposamena
- Ikastetxeetan honako protokoloa aplikatzea: "Getxon emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurrean jarduteko eta koordinatzeko tokiko II. Protokoloa". Elkarrekin Podemosen proposamena.
- V. Berdintasun Planari buruzko informazioa. Elkarrekin Podemosen proposamena.
- Galde-eskeak.

Gizarte-koherenkioko zinegotzi den Carmen Díazez hasi du bilera eta ongietorria eman die bertaratutakoei. Jakinarazi da gaurko batzordean interpretazio-zerbitzua dagoela, Leire Azkargortaren eskutik.

## **1. Aurreko akta onestea**

---

Batzordearen aurreko saioko akta onetsi da, aho batez.

## **2. Berdintasunaren alorreko udal-informazioa.**

---

Gizarte-koherenkioko Carmen Diaz zinegotziak honako hauen berri eman du:

- E28ko kanpaina. LGTBIQ+ kolektiboaren harrotasunaren eta sexu-askapenaren Nazioarteko Egunak ekintza hauek hartuko ditu barne:
  - o Adierazpen instituzionala
  - o *La Bollera Perfecta* monologoa, Pitu Aparicio aktibistaren eskutik. Ekainaren 21ean, Fadura kiroldegian. Ordua: zehazteke.
  - o Komunitate-ekintza. Lanean ari dira sentsibilizatzeke helburua duen ikus-entzunezko produkturen bat egiteke.

- Punta Begoña galerietan, maiatzaren 3tik 26ra, "Bide luzea berdintasunerantz: Euskadiko emakumeak XX. mendean" erakusketa eskaini da, Mario Onaindia Fundazioaren eskutik, zeina Bizkaiko Foru Aldundiak sustatu eta finantzatu baitu. Guztira, 959 pertsona bertaratu dira erakusketara, 373 gizon eta 586 emakume.

- 
- Puntu moreak. Udako jaietan puntu moreen zerbitzua eskaintzen jarraituko dugu; indarkeria matxistaren biktimentzako espazio seguruak dira, non eskuragarri dauden zerbitzuen jakitun diren emakume profesionalen laguntza eta aholkularitza eskainiko baitizkiete. Halaber, indarkeria matxisten gaineko sentsibilizazioa bultzatzen da espazio horietan. Aurten aurrera egin da jai-batzordeen, mugimendu feministaren, puntu moreen eta berdintasun-zerbitzuaren arteko koordinazioan.

San Isidro jaietan ez da gorabehera esanguratsuren berri izan puntu morean.

- Gurari logoa. Epaimahaiak erabaki du hurrengo astean aurkeztea logoa.

### **3. GURARI. Trantsizio-taldea; etxearen irekiera, horren erabilera, parte-hartzea eta kudeaketa.**

Bilgune Feministak hauxe galdetu du:

- Zer egingo dugu parte-hartze izaerako prozesuaren ostean? Nola emango diogu jarraipena prozesuari, bereziki etxearen erabilerari eta horren dinamizazioari dagokienez? Gurari proiektua eraikitzeko lanean jarraitzeko prest daude eta espero du udalkideetako batzuek jarrera bera izatea.
- Zein da zerbitzuaren kontratazioaren egoera? Noiz irekiko da etxea?
- Urritik aurrera erabili ahalko da Gurari, inauguratu ez bada ere? Emakumeen elkarleen bilerak, batzordeak eta abar egin ahalko dira gutxienez?

Carmen Diazek adierazi du etxea inauguratu aurretik ezingo direla espazioak erabili, eta aurreikusi du aurtengo azken hiruhilekoan inauguratzea.

Trantsizio-taldea dinamizatu nahi dugu eta, horretarako, lagundu ahalko gaituen pertsona egokia bilatzen ari gara.

Azkenik, kontratatzailearen profilean daude jada zerbitzuko lizitaziorako pleguak. Langileen zereginei eta kudeaketa-ereduari dagokienez Elkarrekin Podemosek egindako galderari buruz, adierazi du pleguetan jasota daudela zeregin guztiak, bai koordinatzailearenak, bai dinamizatzaileenak. Udalak une oro gainbegiratuko ditu etxearen kudeaketa eta proiektua, eta erakundearen berdintasun-politikei jarraituko zaie.

#### **4. Udaleko Berdintasun Arloaren baliabideak.**

---

Bilgune feministak esan du Berdintasun Arloko plantillan gutxienez beste Berdintasun teknikari bat egoteko eskaera historikoa dela. Berdintasun Zerbitzua txikia da Getxo udalerrarentzat eta, beste teknikari bat izateaz gain, baliabideak ere areagotu beharko lirateke.

Berdintasun zinegotziak jakinarazi du hiru pertsona hasiko direla GURARIIn lanean, hasiera batean bakarra izatea proposatu bazen ere, eta ahal duen moduan antolatzen dela udala. Bilgunek erantzun du GURARI sortu aurretiko eskaera dela eta jarraituko duela plantillan beste Berdintasun teknikari bat egon dadin eskatzen. Ildo horretatik, Elkarrekin Podemosek informazioa eskatu du Berdintasun Zerbitzua ez indartzeari buruzko irizpide-aldaketari dagokionez, eta erantzun diote gobernu-taldeak hartzen dituela erabakiak eta kasu honetan erabaki duela II. kapituluaren oinarritzea kontratazioa.

#### **5. Udaleko gainerako arloekin koordinazioa eta lankidetzak.**

---

Berdintasun Arloaren eta udaleko gainerako arloen artean koordinazio handiagoa egoteko eskaera aspaldikoa da ere bai.

Galdetu dute ea udalak nola kudeatu duen San Isidro jaien kartela dela-eta sortutako liskarra. Zinegotziak erantzun du gai hori ez dagokiola foro honi, ez baitago berdintasunari lotuta. Bilgune feministak Kulturartekotasun teknikariari buruz galdetu du, horrelako kasuetan udalaren izenean hitz egin eta koordinatu dezan; horrez gain, uste du kulturartekotasuna, berdintasuna eta gazteria elkarri lotuta landu behar direla. Zinegotziak erantzun du udalean ez dagoela Kulturartekotasun teknikaririk, Esku-hartze Komunitarioko teknikariak baizik.

Bilgune feministak eskatu du aktan jasota geratu dadin Bilgune eta Gizarte-koehioko zinegotzia biltzeko eskaera.

## **6. Ikastetxeetan honako protokoloa aplikatzea: "Getxon emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurrean jarduteko eta koordinatzeko tokiko II. Protokoloa".**

Europa ikastetxean egondako erasoen harira, hauxe galdetu du:

- Ba al dago horrelako kasuetan aplikatzeko protokolo autonomikorik, aintzat hartuta adingabeko lau neska zirela?
- Zerbait egin al da Udaletik?

Carmen Diazek, erantzuteko, azaldu du Tokiko II. Protokoloaren eta Erakundearteko III. Akordioaren funtzionamendua, non argi eta garbi jasota baitago nola jardun behar den: besteak beste, Hezkuntza Ikuskaritzari jakinarazi behar zaio.

Elkarrekin Podemosek galdetu du ea zergatik ez den erasoen aurkako erantzun publikorik egon, antzeko kasuetan egin ohi den bezala. Zinegotziak erantzun du kasu hau berezia dela: atestatua babestuta dago eta ez daukagu egiten ari den ikerketari buruzko daturik eta, hortaz, informazio gehiago jasotzeko gain gaude.

## **7. IV. Berdintasun Plana**

Elkarrekin Podemosek V. Planaren gaur egungo egoerari buruz galdetu du, eta adierazi du duela urtebete baino gehiago aurkeztu zela batzordean eta ez dutela horren gaineko berririk izan. Carmen Diazek erantzun du horretan lanean jarraitzen dutela Berdintasun Arloan eta gaur egun Emakundek proposatutako eta Gobernu-kontseiluak onetsitako estrategia berrietara egokitzen ari direla plana.

## **1. Galde-eskeak**

---

18:30ean amaitu da bilera eta adostu da batzordearen hurrengo bilera uztailaren 12an egitea.